ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU

# BESTELAKO EUROPA BEHARREZKOA DA!

Los gobiernos de la Unión Europea, reunidos en Bruselas la semana pasada, se han comprometido a llegar a un acuerdo sobre la Constitución Europea en el mes de junio. En la misma reunión se han reafirmado en seguir aplicando medidas neoliberales en diversas áreas, para lo que consideran necesarias reformas del mercado laboral, de las pensiones o de los sistemas de salud, en un claro apoyo a las reformas emprendidas por Schroeder o Raffarin, y rechazadas por los pueblos. Los trabajadores y trabajadoras ya sabemos qué derechos sociales y avance de la privatización de la educación y de la sanidad.

El que a la vez que se hayan comprometido a desbloquear la Constitución Europea se hayan reafirmado en seguir aplicando medidas perjudiciales para la mayoría de la población, es indicativo del tipo de construcción europea que se viene desarrollando.

Los gobiernos de la Unión Europea aspiraban a alcanzar un acuerdo sobre la Constitución para finales del año pasado. Sin embargo, no lo consiguieron. La diferencia radicaba, y radica, en un reparto del poder entre gobiernos de los estados. Lo único que les separa es quién manda un poco más o un poco menos. Es un debate que sólo interesa a las élites de los gobiernos y a las burocracias de las instituciones. Otra vez más el debate sobre los derechos humanos, sociales, económicos, culturales o medioambientales ha sido relegado.

Europa debe ser una Europa social y de los pueblos, basada en la democracia y en la justicia social. Sin embargo, el proyecto de Constitución no va en esa dirección:

- ✓ El proyecto conocido se ha elaborado hurtando el debate social, y prevé su aprobación sin dar ninguna opción a que la ciudadanía puede decidir sobre el mismo.
- ✓ Es cierto que adopta la Carta de Derechos Fundamentales. Sin embargo, los derechos recogidos en esta Carta, que son de por sí insuficientes (por ejemplo, no se recoge el derecho al trabajo ni la igualdad entre mujeres y hombres), se reconocerán atendiendo a la tradición de cada Estado. Se debería reconocer más derechos, y hacerlo realmente.
- ✓ Se supedita el modelo social y medio ambiental europeo al principio de una economía de mercado abierta y de libre competencia. Es decir, prima una supuesta competitividad sobre los derechos sociales.
- ✓ Se restringe la capacidad del Estado para organizar los servicios públicos, sometiéndolos a los intereses de la competencia. En definitiva, los servicios públicos, que deberían quedarse al margen de la filosofía del mercado, pasan a ser "servicios de interés económico general", en un lenguaje calcado de la Organización Mundial del Comercio (OMC), diluyendo los servicios públicos básicos (salud, agua potable, educación, transporte…) dentro de los 160 "servicios económicos" afectados por el Acuerdo General de Comercio sobre Servicios. Frente a esto se deberían garantizar los servicios públicos universales y gratuitos.
- ✓ Se consolida el modelo neoliberal en políticas económicas, monetarias, etc. (Pacto de Estabilidad, la independencia del Banco Central, la liberalización de capitales,...).
- ✓ En lugar de buscar el pleno empleo y la eliminación de la precariedad se insiste en la vía de la flexibilización laboral.
- ✓ Las políticas agrícolas tienen como objetivo prioritario el incremento de la productividad agrícola, en detrimento de un modelo agrario que garantice la soberanía alimentaria, el empleo, el medio ambiente y la calidad de la alimentación.
- ✓ Se señala que la Unión respetará las funciones esenciales de los actuales estados miembros, en particular las que tienen por objeto garantizar su integridad territorial, mantener el orden público y salvaguardar la seguridad interior. De esta forma no sólo no se recoge la posibilidad de ejercicio del derecho de autodeterminación de los pueblos, sino que se apuntalan las políticas que lo niegan.
- ✓ No se reconoce la pluralidad lingüística, ni la diversidad identitaria, ni se habilitan instrumentos de democracia participativa.
- ✓ Se avanza en una Unión Europea que cierra sus fronteras a las personas, y se opta por una política militar, supeditada además a la OTAN, en lugar de trabajar por una solución política, democrática y pacífica de los conflictos.

Por todo ello, reclamamos que los derechos sociales y los de los pueblos sean incorporados en la Constitución Europea, ya que lo que hasta ahora conocemos no es lo que las trabajadoras y trabajadores demandamos, y por eso nos movilizamos el 2 de abril de 2004, dentro de la jornada de acción europea que se celebra el 2 y el 3 de este mes

## Por los derechos sociales y de los pueblos en la Constitución

# BESTELAKO EUROPA BEHARREZKOA DA!

Europar Batasuneko gobernuak Bruselan elkartu ziren joan den astean eta agindu zuten ekainerako lotuko zutela Europako Konstituzioari buruzko akordioa. Bilera horretan berretsi zuten arlo batzuetan neurri neoliberalak ezartzen iraungo zutela. Horretan, beharrezkotzat jotzen dituzte lan merkatuko aldaketak, pentsio eta osasun sistemen erreforma (Schroederrek edota Raffarinek bultzaturiko eta herriek arbuiatzen dituzten erreformei lagunduz). Langileok badakigu nora garamatzaten neurri hauek: lan eskubide urriagoak, ezegonkortasun handiagoa, prestazio eta gizarte-eskubide gutxiago eta hezkuntza eta sanitatearen pribatizazioan aurrera egitea.

Era berean, Europako Konstituzioa desblokeatuko dutela agindu duten bitartean, biztanleriaren gehiengoari kaltegarri gertatuko zaizkion neurriak erabiliko dituztela berretsi izana eraikitzen ari diren Europaren adierazgarri da.

Europako Batasunaren gobernuek iazko amaierarako lotu nahi zuten Konstituzioari buruzko ituna. Hala ere, ez zuten lortu. Hauen arteko desberdintasuna estatuen botere banaketan zetzan eta datza. Banantzen duten bakarra nork aginduko duen gehiago eta nork gutxiago da. Eztabaida hau gobernuetako eta erakundeetako burokraziei bakarrik axola zaie. Berriro ere giza eskubideen, gizarte-eskubideen, ekonomia, kultura edota ingurumen-eskubideen eztabaida zokoratu dute.

Europak gizarte eta herrien Europa izan behar du, demokrazian eta gizarte-justizian oinarritua. Aldiz, Konstituzioaren proiektua ez doa ildo horretan:

- Ezagutzen dugun proiektua jendarteari eztabaida lapurtuz egin da, eta aurreikusten dute hiritarrak hari buruzko erabakirik hartu gabe onartzea.
- Egia da Oinarrizko Eskubideen Gutuna hautatu duela. Hala ere, Gutun honetan biltzen diren eskubideak, berez ez nahikoak direnak (adibidez, ez da agertzen lan eskubidea, ez eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun eskubidea), onartuko dira; eta onartu ere, Estatu bakoitzaren tradizioak kontuan hartuz. Eskubide gehiago onartu beharko lirateke, eta benetan egin ere.
- Merkatu-ekonomia irekia eta lehia askekoaren printzipioak Europako gizarte eta ingurumen eredua baldintzatzen du. Hots, balizko lehia nagusitzen zaie gizarte-eskubideei.
- Estatuei zerbitzu-publikoak antolatzeko dagokien ahalmena murrizten da, eta lehiaren interesen azpian jartzen dira. Laburbilduz, merkatuaren filosofiatik at egon beharko luketen zerbitzu publikoak, Munduko Merkataritza Erakundeak (MME-OMC) erabilitako hizkera kalkatuz, "ekonomia interes orokorreko zerbitzuak" izatera igaro da; eta oinarrizko zerbitzu publikoak (osasuna, ur edangarria, hezkuntza, garraioa,..) diluitzen dituzte Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Orokorrak eragindako 160 "ekonomia-zerbitzuen" baitan. Honen aurrean, zerbitzu publikoak orokorrak eta doan izatea bermatu beharko litzateke.
- Ekonomia, moneta, eta bestelako politiketan eredu neoliberala sendotu da (Egonkortasun Ituna, Banku Zentralaren independentzia, kapitalen liberalizazioa,...).
- Enplegu betea bilatu eta ezegonkortasuna ezabatu beharrean, lana malgutzeko bidea nabarmentzen da.
- Nekazal politiken lehen xedea nekazaritzako produktibitatea areagotzea da. Hau elikagaien burujabetza, enplegua, ingurumena eta elikagaien kalitatea bermatuko duen nekazaritzako eredu baten kaltean egiten da.
- Aipatzen da Batasunak begirunea erakutsiko diela egungo estatu kideen funtsezko eginkizunei, batez ere, lurralde-osotasuna, ordena publikoari eustea eta barne segurtasunaren zaintza bermatzea helburu dutenak. Honela, herriek burujabetza eskubidea gauzatzeko duten eskubidea ez jasotzeaz gain, berau ukatzen dituzten politikei eusten die.
- Ez da onartzen hizkuntza aniztasuna, ez nortasun desberdinak, ez eta demokratikoki parte hartzeko tresna antolatu ahal izana.
- Eraikitzen ari diren Europako Batasunak gatazkei irtenbide politiko, demokratiko eta baketsua ematearen alde lan egin beharrean, mugak ixten dizkie pertsonei, politika militar baten aldeko hautua egiten du, eta Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundearen, OTAN alegia, menpean jartzen da.

Horregatik guztiagatik, gizarte eta herrien eskubideak Europako Konstituzioan sar daitezen eskatzen dugu: orain arte ezagutu duguna ez delako langileok eskatzen ari garena. Horrexegatik mobilizatuko gara 2004ko apirilaren 2an, hilaren 2an eta 3an Europa mailan egingo den ekimenaren barruan.

## Gizarte eta herri eskubideen alde Konstituzioan